

PRENTSA OHARRA / 2023-9-20

---

## UPV/EHUK eta Euskadiko Parke Teknologikoak mugikortasun elektriko bultzatu dute Leioan birkarga bikoitzeko puntu bat instalatuz

---

- **Ekimena unibertsitateak Europako Mugikortasunaren Astea dela eta antolatutako jardueren barruan kokatzen da.**

**2023ko irailaren 20a.** Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskadiko Parke Teknologikoak, Leioako campusean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bikoitza inauguratu dute, egunero ingurune akademiko eta enpresarial horretara joaten diren milaka pertsonen artean mugikortasun iraunkorra errazteko eta bultzatzeko. Instalazio hori martxan jartzea Europako Mugikortasunaren Astearen barruan egin da. Astearen lema 'Konbinatu eta mugitu!' da, eta UPV/EHUko hiru campusetan hainbat jarduera egingo dira hilaren 22ra arte (ostirala).

Kargatze-puntua Parke Teknologikoko Egoitza Eraikinaren ondoan dago, eta 180 kilowatteko (kW) kargagailu bikoitz superazkarra du, ibilgailuen bateriaren %80 bost minutu baino gutxiagoan kargatzeko. Puntu hau erabiltzen duten pertsonak, gainera, beren auto elektrikoaren bateria energia %100 berdearekin kargatzeko bermea izango dute, energia berriztagarriko iturrietatik datorrena, eta jatorri-bermearen ziurtagiria (GdOs).

Kargatze-gune berriaren inaugurazioan parte hartu dute Gorka Morenok, EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordeak eta Joseba Urbietak, Bizkaiko Parke Teknologikoko kudeatzaileak.

Instalazio hori abian jartzea UPV/EHUK Europako Mugikortasunaren Astea ospatzeko duen jarduera-programaren barruan dago. Hala, irailaren 20tik 22ra, hiru campusetan jarduera-programa zabala egingo da, unibertsitate-komunitatean mugikortasun iraunkorrerako sustatzeko.

Jardueren artean daude bizikletaz eta patinete elektriko egindako ibilbideak, bizikletentzako tailerrak eta auto elektrikoaren erakustaldiak, besteak beste, Formula Studentena, Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasle eta irakasle talde batek garatua.

**Parke Teknologikoaren apustua mugikortasun elektrikoaren alde**

# Parke

EUSKADIKO  
PARKE  
TEKNOLOGIKOAK



Universidad del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Leioan birkarga-puntu bikoitza jartzea Euskadiko Parke Teknologikoak mugikortasun iraunkorrarekin duen konpromisoaren parte da. Gasteizko instalazioetan, 17 puntu bikoitz ditu kargatze elektrikorako, eta beste 13 Zamudio/Derion. Helburua da ibilgailu-mota horien erabilera sustatzea, Euskadiko Parke Teknologikoko egoitza guztietan klima-neutraltasuna erdietsiko duen 'Parke Berdea' agertokia lortzen laguntzeko.

---

#### **Informazio gehiago:**

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

[prentsa@parke.eus](mailto:prentsa@parke.eus)

T 94 403 95 00